

# Estilo pedagogiko eskolapioa

## Aurkezpena

Ikastetxe eskolapioetan hezten dugunok Jose Kalasanzek Europako lehen eskola herrikoia eraiki zuenean hasi zuen bide beretik gabiltzala sentitzen dugu. Orduetik Pietatea eta Letrak goiburua (Ebanjelizazioa eta Hezkuntza gizarte eraldaketarako) beren bokazio propioa egin duten milaka eta milaka eskolapioen bide berberatik. Gure estilo pedagogikoan gure fundatzaileak izan zituen intuizioak antzematen ditugu, zeren bere eskolak errealitateari eta haurren beharrei begira antolatu baitzituen, batez ere haur pobreenen premiei begira.

Agiri honek Eskolapioak-Emaus sareko ikastetxeen aukera pedagogikoak zehaztu eta marko batean eman nahi ditu gure probintziako Hezkuntza proiektu markoan bilduta zegoenetik eta eskolapioen ordenak bere azken kapitulu orokorrean markatu zituen orientabideetatik abiatuta<sup>1</sup>.

Funtsezko zortzi aukeratan egituratu dugu agiri hau, horiek baitira gure ikastetxeen praktika pedagogikoak izan behar dituen identitate eskolapioaren ezaugarriak. Funtsezko aukera bakoitza aspektu bereziagoetan zehazten da, eta horiek egiteko modu konkretuak proposatzera ere iristen da.

Hauxe nahi dugu: lan eskema honek maila desberdinetan irakurtzeko ahalbidea eman dezan, eta batez ere elkarriketa sortzeko eta gure ministerioa egiten dugun testuinguru desberdinetan behar diren zehaztapenak egiteko balio izan dezan.

Eskolapioen Ikastetxeen Idazkaritza – Emaus Probintzia  
2012.eko iraila

---

<sup>1</sup> Gure ministerioaren kalasandar identitatea. Kongregazio Jenerala. Erroma 2012.

# **1. Ikasle bakoitza gure hezkuntza lanaren erdi gunean jartzen dugu eta haietako bakoitza pertsona bakar eta errepika ezina bezala baloratzen dugu<sup>2</sup>.**

Horretarako:

- a. Ikasle bakoitza den bezalako onartzen dugu.
  - i. Ikasle bakoitzari errespetu handiena erakutsiz.
  - ii. Bere errealitate pertsonala ezagutuz.
  - iii. Bere interes eta iritziak kontuan hartuz.
  - iv. Bere funtsezko gaitasunak onartuz.
  
- b. Egoera pertsonaletatik abiatuz hezten ditugu.
  - i. Pertsonaren egoera zailen aurrean malguak izanez.
  - ii. Zailtasunak hezkuntza erronkak bihurtuz.
  - iii. Ikasleei beren baliabideekiko konfiantza transmitituz.
  - iv. Aldaketa eta aurrerapen guztiak balioetsiz, txikiak izan arren.
  
- c. Ikasle bakoitzarekin dugun harremana hezitzailea da.
  - i. Ikasleekin gela barruan eta kanpoan harreman informal ona lortuz.
  - ii. Beren hazkunde pertsonalean aholkatu eta orientatuz.
  - iii. Gidaritza hezitzailea gauzatuz.
  - iv. Ikasle bakoitzaren onena bultzatuz.
  
- d. Gure ikasleei akonpainamendu integrala egiten saiatzen gara.
  - i. Ikasleen prozesua lagunduz, bai alderdi akademiko, humano eta solidarioetan bai bokazio eta espiritu arloetan.
  - ii. Ikasleen barne munduari hurbilduz.
  - iii. hitzez eta keinuz baldintzarik gabeko maitasuna emanaz eta ikasle bakoitzaren hazkunde eta eboluzioan itxaropen eta konfiantza osoa transmitituz.
  
- e. Tutoretza planak sortzen ditugu.
  - i. Ikasleen premiei eta etapa ebolutiboari modu programatuan kasu eginez.
  - ii. Gure ikasleentzat hain erabakigarriak diren arlo hauetan prestatuz: osasunerako hezkuntza (mendekotasunak, kontsumoa, elikadura, sexualitatea...), afektibitatea, bizikidetzak eta berdintasuna; bideko hezkuntza, teknologia berriak eta gizarte sareak; hezkuntza eta lanbide orientazioa...
  - iii. Tutoreen prestakuntza lagunduz, izan behar diren laguntzaile nagusien papera hartu ahal dezaten.

---

<sup>2</sup> Kongregazio Jenerala, Gure ministerioaren kalasandar identitatea. (Madril-Erroma: Ed. Calasancias 2012). Adierazleen proposamena, 1. Haur eta gazteen zentraltasuna. 13 or.

- f. Gure ikasleen gaitasun espirituala garatzen dugu.
- i. Ikasle eta familiei lehen urtetatik esnatze erlijiosoan lagunduz.
  - ii. Ikasleen errealtateetik abiatzen den prestakuntza erlijioso emanetz<sup>3</sup>.
  - iii. Adinari egokiak diren ospakizun erlijiosoak eta Jainkoarekiko esperientziak diseinatuz<sup>4</sup>.
  - iv. Jesusen mezua ikastetxean eguneroko bizikidetzan ikusaraziz.
  - v. Bizitzarako proposamen baliotsu bezala Jesusi jarraitzera gonbidatuz.
  - vi. Jesusen jarraibidea gudan, irakasleengan, haragitzuz, gure ikasle eta familientzat eredu eta erreferentzia izanik<sup>5</sup>.
  - vii. Kristau Komunitate Eskolapioan bukatuko duten talde prozesuak Elizan txertatzeko lekutzat antolatuz<sup>6</sup>.

## **2. Gure ikasleen aniztasuna ikastetxeetako identitate eskolapioaren ezaugarri bezala zaintzen dugu.**

Horretarako:

- a. Aniztasuna aberastasun eta aukera pedagogiko bezala hartzen dugu.
  - i. Pertsona guztiak desberdinak garelara onartuz.
  - ii. Aniztasunari erantzuteko prestakuntza sustatuz.
  - iii. Gelan metodologia desberdinak erabiliz.
  - iv. Ikastetxean eskola-ordutik kanpo eskola-laguntzako programak bultzatuz.
- b. Ikastetxeko pertsona guztiak inplikatzeko dituen aniztasunari erantzuteko plan bat egiten dugu.
  - i. Gure ikastetxeetan prestakuntza ibilbide desberdinak sortuz.
  - ii. Hezkuntza-errefortzu eta -laguntzak antolatuz.
  - iii. Arloko programazioak eta ebaluazio sistemak antzemandako premiei egokituz.
- c. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei ahalik eta egokien erantzuten diegu.
  - i. Hezkuntza premia berezien diagnostiko goiztiarra lortzeko estrategiak asmatuz.
  - ii. Ikasteko zailtasun handienak dituzten ikasleei harrera berezia eginez.
  - iii. Gaitasun handia duten ikasleei ere arreta emanetz.
  - iv. Behar dituzten ikasleak beste baliabide batzutara bideratuz eta koordinazio egokia mantenduz.

---

3 Ibid., Adierazleen proposamena, 4.3. 19 or.

4 Ibid., Adierazleen proposamena, 4.11. 19 or.

5 Ibid., Adierazleen proposamena, 4.13. 20 or.

6 Ibid., Adierazleen proposamena, 4.8. 19 or.

- d. Orientazioa koordinatzen duten Orientabide Taldeak sortzen ditugu.
  - i. Irakasle eta tutoreei ikasle eta taldearen ezagutza ahalbidetzeko behar den informazioa emanaz.
  - ii. Ikasle edo talde bati buruz aholkuak emanaz eta haiekin jarraitu behar diren metodologiak edo estrategiak ahalbidetuz.
  - iii. Ikaste eta hazkunde prozesuan arazo edo zailtasunak antzemateko elkarrekin lan eginez.
  - iv. Tutoretza lana programatzeko orduan Orientabide Taldeari lagunduz.
  - v. Ikasle edo familiekin (banaka zein taldeka) parte hartuz, irakasleek edo Orientabide Taldeak eskatzen dutenean.
  - vi. Ikasleei behar duten laguntza momentu puntual batzuetan (ikasle berrien harrera, ziklo edo etapa aldaketa, ikasketen orientazioa...) emanaz.
  - vii. Premia bereziak dituzten ikasleei laguntza emanaz, bai ikasle berak, bai irakasleek edo familiak eskatzen dutenean.
  - viii. Eskatzen duten familiei ahokatzuz.
  
- e. Aniztasunari erantzuteko neurri espezifikoak ebaluatu eta hobetzen ditugu.
  - i. Ikasleekin egiten ditugun esku-hartze espezifiko guztiak dokumentatuz.
  - ii. Helburuen lorpenak noizbehinka ebaluatuz.
  - iii. Behar diren kasuetan esku-hartzeko proposamenak berriz definituz.

### **3. Gure ikasleen oinarrizko gaitasunak garatzeko metodologia berritzaile, simple eta eraginkorrak sortzen ditugu<sup>7</sup>.**

Horretarako:

- a. Gure ikasleak ikasten jarraitzeko eta bizitzaren erronkei eraginkorki aurre egiteko trebatuak izaten direlako berme gisa gaitasunak garatzeko ikuspuntua erabiltzen dugu<sup>8</sup>.
  - i. Oinarrizko gaitasunen eta ziklo edo etapa bakoitzaren curriculumeko beste elementuen artean dauden harremanak ezarriz<sup>9</sup>.
  - ii. Programazio didaktikoak egin eta diseinatzeko eta gaitasunen garapena ahalbidetzen duten jarduerak (adibide praktikoekin) aukeratzeko orientabideak zehaztuz.
  - iii. Gaitasunen lorpen maila ebaluatzeko prozedurak, tresnak eta adierazleak sortuz.
  - iv. Gure egunero praktikan erabiltzen ditugun ikaste-irakaste eta ebaluapen ereduak aztertuz.

---

<sup>7</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 3.13. 17 or.

<sup>8</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 3.9. 17 or.

<sup>9</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 3.1. 16 or.

- v. Irakasleentzat baliabide banku bat sortuz, egiazko ebaluazioen adibide konkretuekin: gaitasun baten ebaluazio irizpideen moldea, lanak ebaluatzeko molde espezifikoak, izenburuak, dokumentuak gordetzeko zorroa, problemen ebazpena, kontrol zerrendak...
- vi. Aipatutako alderdiak hartzen dituzten gela, ziklo, etapa eta zentroko proiektuak diseinatu, erabili eta ebaluatuz.

b. Diseinatu eta sortzen ditugun hezkuntza-egoerak hain adierazgarriak dira, non hausnartzeko, ezagutza propioa eraikitzeko, pareen artean elkarrekin lan egiteko eta estrategikoki ikasteko dinamikak erabiltzeko eramaten baitituzte gure ikasleak.

- i. Ikaslearen ikaste prozesuan irakaslearen eginkizuna bitartekariarena izan dadila bultzatuz
- ii. Irakasleak eta gelakideek erabilitako pentsamendu prozesuak ezagutaraziz.
- iii. Ikasteko estrategiak erakutsiz.
- iv. Lan egiteko proiektuak programatuz.
- v. Gelan ikaste kooperatiboko dinamikak bultzatuz.
- vi. Koebaluazioa lagunduz.

c. Ikasle bakoitzari testuinguru sozio-educatibo desberdinetan ematen diogun hezkuntza erantzunari buruz hausnartzen dugu.

- i. Gure lanaren barne ebaluazioa sustatuz.
- ii. Gure ikasleen emaitza akademikoak eta ikastetxeak kanpoko ebaluazioetan atera dituen emaitzak analizatuz, gure praktikaren ebaluazio bezala.
- iii. Buru argia eta jarrera hezitzaile malgua mantenduz, hezkuntza aukera berrien aurrean<sup>10</sup>.

d. Prestakuntzaren eta berrikuntza pedagogikoaren planak finkatuz<sup>11</sup>.

- i. Ikastetxeko eta Probintziako Helburu Estrategikoekin lerrotatuz.
- ii. Berrikuntza pedagogikoa gure ikastetxeetako funtzionamenduan giltzarria den prozesu parte-hartzaile bat bezala ulertuz.
- iii. Gure eguneroko hezkuntza lanean antzematen ditugun mugei erantzunez.
- iv. Gure praktika onak ikastetxeko lankideen, gure sareko ikastetxeen eta hurbileko ikastetxeen artean partekatuz<sup>12</sup>.
- v. Orientatuko gaituzten eta berritzeko baliabideak proposatuko dizkiguten ikerketa zentroekin aliantzak eraikiz.
- vi. Benetako ikaste komunitateak sortuz, gure ikasleei kasu bakoitzean hezkuntza-erantzun onenak eskaintzen jarraitu ahal izateko behar den ezagutza kolektiboa eraiki, partekatu eta sortzeko.

---

<sup>10</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 3.2. 16 or.

<sup>11</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 9.8. 27 or.

<sup>12</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 9.12. p.27.

e. Hezkuntza talde guztietan eta arlo desberdin hauetan: irakatsi, ikasi eta ebaluatzeko moduan; curriculum diseinu propio eta programazio didaktikoetan; gelako kudeaketa eta organizazioan; eta ikaste lana errazten duten teknologia berrien eta hezkuntza baliabideen erabilpenean... apropos bilatzen diren aldaketak eragiten dituzten ekimen kolektiboak egiten ditugu.

#### **4. Gure mundu eta gizartearekiko kontzientzia kritikoa sortzeko behar diren lanbideak ekartzen ditugu.**

Horretarako:

- a. Dena etengabe zalantzan jartzearekin batera pentsamendu propio eta originala sustatzen duten bideak ezartzean ditugu.
  - i. Gure hizkuntza eta metodoak egokituz, ikasleek eskola eremutik kanpo aurkitzean izango dituzten erronkei.
- b. Bide errealak eskaintzen ditugu munduarekiko benetan eragiteko, ikasle bakoitzak bere esperientziaz aurkitu dezan nola lagundu modu aktibo eta positiboan gizartearen hobekuntzara<sup>13</sup>.
  - i. Gure ikasleek duten interes sozialari irteera onuragarri bat emanez.
  - ii. Itaka-Eskolapioak elkarrekin dugun aliantzaren bidez pastoral taldeak, boluntarioen proiektuak, sentsibilizazio kanpainak, garapenerako kooperazio proiektuak, Elkartasunaren festa... antolatuz.
- c. Hiritar konprometituak, pertsona kontzientziatuak, mundua eraldatzeko benetako gaitasuna duten ikasleak lortu nahi ditugu.
  - i. Desberdintasunen jatorria eta haiei erantzuteko moduak egiaz ezagutzeko lagunduz.
  - ii. Gure geletan ikasleen arteko laguntasun eta adiskidetasun loturak ezarri eta baita ahulenekiko enpatia sortzea ere ahalbidetzen dieten esperientzia garrantzitsuak eskainiz.

#### **5. Bizi ditugun errealitate sozio-kulturalei eta mundu globalizatu baten eskariei erantzuten diegu gure ikasleen hizkuntza gaitasunak garatuz.**

Horretarako:

- a. Ikastetxeko hizkuntza proiektuak idazten ditugu:
  - i. Ikastetxetik onartuz, hizkuntza helburuak lortzearen erantzukizuna.
  - ii. Kontuan hartuz hizkuntza garapena funtsezko eragile bat dela gure ikasleen garapenean eta curriculumaren arlo guztietan baldintzatzen duela beren ikasteko gaitasuna.

---

<sup>13</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 5.4. p.21.

iii. Hizkuntza desberdinen irakaskuntza koordinatuz, batetik bestera ikaste prozesuaren transferentziak eta elkarrekiko errefortzua bermatzeko.

iv. Ikastetxean Hizkuntza Proiektuari segimendua egiteko azken erantzulea Zuzendaritza Taldea dela zehaztuz, eta Talde Pedagogikoarekin batera ekintza plan bat proposatuz, non hizkuntza ofizialen erabilerako neurriak eta atzerriko hizkuntzen tratamendua jasoko baitira.

v. Ontzat emanez hizkuntza desberdinen irakaskuntzak ez duela prozesu berdintsua izan behar eskolako urte guztietan barrena, baizik eta garaiak izan daitezkeela, zeinetan modu berezian eragingo baita hizkuntza batean edo bestean.

vi. Hizkuntzen irakaskuntzari ikuspuntu komunikatiboa emanez (erabilera ahalbidetuko duena), horretarako hizkuntzak eskolan eta pertsonarteko eremuan beste ikasgai garrantzitsu batzuen ikasketa-bide bezala era askotako egoera komunikatiboetan erabiliko dira.

b. Ikasleen hizkuntza-garapenaren erantzukizuna hezitzaile guztiek hartzen dugu.

i. Arreta berezia emanez diskurtso trebetasun hauek jasotzeari: testuak ulertu eta ekoiztu, hizkuntza kode bereziak erabili eta hizkuntza adierazpen desberdinekiko errespetu eta gustu jarrerak hartzea.

ii. Gelan erabiliko diren testuak, ahozkoak zein idatziak, egoki aukeratuz, halako moldez non ikasle guztiek ulertu eta aurrera egiten lagun diezaieten.

iii. Ikasleen ahozko eta idatzizko adierazpena erraztuz, beren zuzentasun, zehaztasun eta argitasunari kasu eginez, baita elkarrizketa eta kritikarako gaitasunari ere.

iv. Hizkuntza desberdinetan irakurtzeko gogoia bultzatuz.

v. Ikasleek ahozko zein idatzizko testu baten ideia nagusiak bilatu eta aukeratzen jakin dezaten bultzatuz.

vi. Ikasleek ekoiztutako testuak egokiak, koherenteak eta kohesionatuak ote diren kasu eginez, morfosintaxi, lexiko eta ortografiari begiratzeari utzi gabe.

vii. Kontuan hartuz bere ama hizkuntza ez den hizkuntza batean eskolatuak diren ikasleen premia bereziak, batez ere hezkuntza ekintzak diseinatzean eta curriculum materialak aukeratzean.

c. Hizkuntza Proiektuaren printzipio eta helburuak hizkuntza ofizialak edo atzerrikoak gutxi edo batere ezagutzen ez dituzten ikasle berrien egoera zehatzera egokitzen ditugu.

**6. Gure ikasleen gaitasun digitala garatzen dugu, erabiltzen dituzten informazio eta komunikazioaren teknologiak modu kritikoan beren ikaste prozesuan eta bizitzan txertatzeko gauza izan daitezen.**

Horretarako:

- a. Ditugun teknologiak ikastetxean aplikatzeko proiektuak sortzen ditugu.
  - i. Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) ikastetxeko prozesu pedagogiko eta administratiboetan txertatuz.
  - ii. Ekintza guztien koordinazio eta koherentzia bermatuz.
- b. Irakasleek ditugun baliabide digitalak bete-betean aprobetxatzen ditugu.
  - i. Ikasteko eszenatoki berri horietatik eratortzen diren irakasle funtzio eta profil berriak bultzatuz.
  - ii. Gure irakasleek garatzen dugun hezkuntza proiektuari balio erantsi bat ematen dioten eduki digitalak sor ditzaten bultzatuz.
- c. Gure ikasleak, geroko hiritarrak, trebatzen ditugu.
  - i. Informazioa ezagutza bihurtzeko duten gaitasuna sustatuz.
  - ii. Ezagutza eta trebetasun berriak sortzeko behar dituzten baliabide eta tresnen erabilera erraztuz.
  - iii. Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabileran erantzukizuna eta espiritu kritikoa sortaraziz.
- d. Familiek beren seme-alaben hezkuntzan gizartearen testuinguru berrian duten egitekoa onartu dezatela saiatzen gara.
  - i. Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) familiei informatu eta prestatzeko ditugun planetan sartuz, arlo honetan behar diren trebetasun eta ezagutzak garatzeko eta horrela beren seme-alabei lagundu ahal izateko.

## **7. Familiekiko ditugun harremanak misio konpartitu gisa ulertzen ditugu<sup>14</sup>.**

Horretarako:

- a. Familiekin atentzio eta akonpainamendu integrala egiteko hitzarmen bat egiten dugu, eta horren arabera ikastetxeak, beren kolaborazioarekin, seme-alaben hezkuntza-prozesuaren garapen on batentzat gure ustez beharrezkoak diren neurri guztiak jarriko dituela hitzematen du<sup>15</sup>.
  - i. Ikasle berrien familiekin elkarriketak eginez, ikastetxea aurkezteko, familiak ezagutzeko eta ikasleak banan-banan ezagutzeko...
  - ii. Eskolara kurtsoa hasita datozen ikasleentzako ekintza eta harrera protokolo bat eginez.
  - iii. Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan banakako tutoretzak eginez.
  - iv. Tutorearen Koaderno erabiliz.
  - v. Kurtso, ziklo eta etapa aldaketan tutoreen arteko informazioaren transmisioa zainduz.

<sup>14</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 7. 24 or.

<sup>15</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 8. 25 or.



- vi. Psikologia eta bokazio Orientabide Zerbitzua antolatuz.
- vii. Urtean behin tutoretzako familia guztiekin banakako elkarrizketak ahalbidetuz (bileraren edukia eta gauzatze bera zainduz eta ikasleen gaitasun positiboen aitopenarekin hasiz)
- viii. Familiekiko harremanetan komunikabide desberdinak (web orria, posta elektronikoa, agenda, plataforma elektronikoa...) erabiliz.
- ix. Izan daitezkeen gabezia edo zailtasunei aurrea hartuz, probak egiten eta gelako jokabidearen behaketaren bidez.
- x. Familiekin aldizka berrikusten diren eta beti hurrengo bileraren hasieran gogoratzen diren akordioak ezarriz.
- xi. Irakasleen prestakuntza arlo hauetan: adimen emozionala, arazoak konpontzeko artekaritza, banako elkarrizketak, ibilbide akademikoak... antolatuz.
- xii. Familiei irakasleen hurbiltasuna bermatuz, ikastetxearen eta tutorearen emailak emanik eta tutoreen gertutasunarekin.

b. Ikastetxearen eta familien arteko hausnarketa eta ekintza konpartituen guneak bultzatzen ditugu.

- i. Bileren bitartez familiekiko komunikazio erraz eta jarraitua sortuz, kurtsorako helburu komunak ezartzeko eta horrela norabide berean ibiltzeko.
- ii. Familiei prestakuntza interesgarri eta erabilgarri bat, beren seme-alaben adinari egokitua, eskainiz<sup>16</sup>.
- iii. Familiak prestatzeko eta biltzeko taldeak (guraso eskola, misio konpartitua...) animatuz<sup>17</sup>.
- iv. Familiei kanpainetan parte hartzeko aukerak eta jarduerak proposatuz, honelako balioak: elkartasuna, Bakea, elkarbizitza, gizarte konpromisoa... lantzeko<sup>18</sup>.
- v. Familiei beren seme-alaben kristau heziketan parte hartzeko etxean egin daitezkeen jarduerak proposatuz.

c. Familiei Elizan txertatzeko leku gisa Kristau Komunitate Eskolapioa eskaintzen diegu.

## **8. Gure egitekoa antolatu eta kudeatzeko bikaintasun irizpideak erabiltzen ditugu.**

Horretarako:

- a. Gure hezkuntza ekintza talde lanean egiten dugu<sup>19</sup>.

---

<sup>16</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 7.5. 24 or.

<sup>17</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 7.7. 24 or.

<sup>18</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 7.5. 24 or.

<sup>19</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 3.6. 17 or.

- i. Gure ikastetxeetako langile guztien lidergoa bultzatuz, hezkuntza, karisma eta antolakuntza mailan.
- ii. Maila bakoitzean (kurtso, zikloaren talde, etapa, mintegiak, talde pedagogikoa...) agertzen diren erronka pedagogikoak elkarrekin onartzen dituzten irakasle taldeak sortuz.
- iii. Proiektuak eta programazio didaktikoak edukien kurtso, ziklo, etapa eta zentroren mailan konpartitzen diren irizpideekin eginez, koherentzia eta sekuentzia bermatzeko.
- iv. Erabilitako metodologiak elkarrekin eta modu jarraituan berrikusiz.
- v. Ikaslearen gaitasunen garapenari zuzentzen zaion benetako ebaluazio bat bultzatuz.

b. Prozesu pedagogikoak kalitate osoaren irizpideekin (EFQM<sup>20</sup> ereduaren arabera) kudeatzen ditugu.

- i. Helburu pedagogikoak estrategikoki eta urtero planifikatuz.
- ii. Gure praktika pedagogikoari etengabeko hobekuntza aplikatuz.
- iii. Barne eta kanpoko ebaluazioetako ikasleen emaitzak erreferentzia gisa hartuz.

---

<sup>20</sup> Ibid., Adierazleen proposamena, 3.14. 18 or.